

SUKALDARITZA ETA JATETXE-ARLOA



OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO MUDAL INSTITUTUA DURANGO

Formakuntza-plana:

Hauek dira heziketa-ziklo honetako moduluak:

1. kurtsoa:

- Zientzia aplikatuak I. (165 o.)
- Komunikazioa eta gizartea I. (165 o.)
- Tutoretza eta orientabidea I. (33 o.)
- Aurretiazko elaborazioko oinarritzko teknikak. (132 o.)
- Lehengaien hornikuntza eta kontserbazioa, eta lehengaiak manipulatzeko higieena. (99 o.)
- Oinarritzko zerbitzatzeko-teknikak. (165 o.)
- Elikagaiak eta edariak prestatzeko oinarritzko prozesuak. (165 o.)
- Bezeroen arreta. (66 o.)

2. kurtsoa:

- Zientzia aplikatuak II. (144 o.)
- Komunikazioa eta gizartea II. (168 o.)
- Tutoretza eta orientabidea II. (25 o.)
- Taldeentzako materialak eta cateringa prestatzea eta muntatzea. (120 o.)
- Sukaldaritzaren oinarritzko prozesuak. (240 o.)
- Laneko prestakuntza eta orientabidea. (53 o.)
- Lantokiko prestakuntza. (260 o.)

Zer ikasiko dut?

- Sukaldaritzaren produkzioaren prozesuetan lagundu.
- Lehengaiak hartzeko, biltegiratzeko eta banatzeko oinarritzko eragiketarako egin.
- Langunea prestatzea, espazioak, makineria, tresnak eta erremintak prestatzea.
- Sukaldaritzaren elaborazio errazak amaitzea eta aurkeztea.
- Catering muntatzeko zerbitzua eta lehengaiak eta tresneria -erabilerara eta kontserbaziora begira- banatzeko zerbitzua prestatzea.
- Sukaldeko zerbitzua egiten laguntzea
- Produkzio-jarduerak eta zerbitzugintzakoak garatzen beharrezkoak diren zerbitzu aurreko eta zerbitzu ondoko eragiketarako gauzatu.
- Sukaldaritzaren teknika errazak aplikatzea, oinarritzko sukaldaritzaren prestakuntza eta askotariko aplikazioen prestakuntza lortzeko, betiere prozesuen estandarizazioa kontuan izanik

Nire ikasketak amaitzean, zer egin dezaket?

Honako lanbide hauetako bat izan dezakezu:

- Sukaldeko laguntzailea.
- Elikagaiak eta edariak produzitzeko eta zerbitzatzeko unitateetako ekonomatuko laguntzailea.
- Aretoko zerbitzariaren laguntzailea.
- Tabernako edo kafetegiko zerbitzariaren laguntzailea.
- Tabernariaren laguntzailea.
- Sukaldeko laguntzailea elaborazio sinple eta azkarrez (pintxoak, plater konbinatuak, eta abar) osatutako eskaintza duten establezimenduetan.
- Elikagaiak eta edariak produzitzeko eta zerbitzatzeko unitateetako ekonomatuko laguntzailea.

Honako ikasketa hauekin jarrai dezakezu:

- Erdi-mailako beste edozein ziklotan sarbide zuzena. Titulu honek lehentasuna izango du familia bereko zikloetan.
- Batxilergoa, DBHko Titulua lortuko duzulako